# *Ikaslea*



## Aurkibidea

**Orrialdea**

BETEKIZUNAK ... 3
ATARIKOA ... 4
IKASTEGIKO ARAUDIA ... 5
CURRICULUMA ... 6
Curriculuma. Datu pertsonalak ... 6
Curriculuma. Bizilekua ... 6
Curriculuma. Prestakuntza ... 6
Curriculuma. Esperientzia ... 7
Curriculuma. Hizkuntzak ... 8
Curriculuma. Informatika ... 8
Curriculuma. Beste batzuk ... 9
Curriculuma. Sortu Curriculuma ... 9
ALBISTEAK ... 10
PRAKTIKA-ESKAINTZA ... 10
AURREHAUTAPENEAN ... 12
ADJUDIKAZIOAK ... 12
EBALUAZIOA, MEMORIA ... 13
KANPOKO PRAKTIKA AKADEMIKOAK EGIN IZANAREN ZIURTAGIRIA ... 14
KUDEATU ABISUAK ... 15
AURKIBIDE ALFABETIKOA ... 16

## BETEKIZUNAK

- Sistema Eragilea: Windows XP SP3, Windows 7, Macintosh, Linux.
- Windows XPn, Internet Explorer nabigatzailea 7. bertsiotik aurrera; Firefox-en 3. bertsiotik aurrera; Google Chrome-n 35.0 bertsiotik aurrera eta Safari-n 5.17 bertsiotik aurrera.
- Windows 7-n Internet Explorer nabigatzailea, 9. bertsioa (32 biteko arkitekturak); Firefox-en 23.etik aurrera; Google Chrome-n 35.0 bertsiotik aurrera; Safari-n 5.17 bertsiotik aurrera.
- Macintosh-en hauek exekutatzeko bakarrik: Web HTML (No Oracle Form) profilak, Firefox nabigatzailea 23.etik aurrera; Safari-n 7. bertsiotik aurrera.
- Linux-en hauek exekutatzeko bakarrik: HTML Web-a(No Oracle Form), Firefox nabigatzailea 23.etik aurrera.
- Java, JRE 6 Update 16-etik JRE 7 Update 45-era (32 bit).
- Word 2007.
- Acrobat Reader (8.etik 11.era).
- Izenpe User 3.2.1.0 kit-a

## ATARIKOA

Dokumentu honetan, borondatezko praktikak kudeatzeko modulu berriak ikasle gisa identifikatutako erabiltzaileari eskainiko dion funtzionaltasuna deskribatzen da.

Ikaslea GAUR aplikazioaren erabiltzailea izango da. GAURera sartzean, "BP Ikaslea" profil berria agertuko zaio. Sakatzean, orrialde bat agertuko da menu batekin; bertan, “Borondatezko Praktikak” esteka ikus daiteke.

Esteka horren gainean sakatzean, beste leiho bat irekiko da, derrigorrezko praktiken kudeaketari lotutako moduluarekin.

Ikastegien eremuan, ikasleari lotutako ikastegiak ageri dira. Ikastegi bat hautatuz gero, batetik, ikastegian irekita dauden ikasturteak agertzen dira, eta, bestetik, itxita daudenak, baldin eta ikasleak horietan esleipenen bat badu.




Ikasturtearen gainean sakatzean, ikaslea zer titulutan dagoen matrikulatuta berrikusiko du aplikazioak. Ikasleak gainditutako kreditu kopurua eta ikastegiak sistemara sartu ahal izateko zehaztutako gutxieneko kreditu kopurua erkatzen dira. Ikasleak kreditu kopuru hori gainditzen badu, sistemak bere sarrera onartuko du automatikoki, eta modulura sartzeko aukera emango dio. Gainditu ezean, bere eskaeraren edo kudeaketaren erregistroa gordeko da, baina ez zaio sarrera onartuko; beraz, ez du sartzeko aukerarik izango.

Ikastegi jakin batera sartzean, ikasleak ondokoaren antza duen pantaila ikusiko du, hainbat menu-aukerarekin.



## SARBIDEA - IKASTURTEAK

Ikastegi bat hautatzean, irekitako ikasturteak aztertu eta erakutsiko ditu sistemak, eta baita itxitakoak ere, baldin eta ikasleak horietan praktikaren bat esleitua badu.




## IKASTEGIKO ARAUDIA

Menuko aukera honen bidez, ikastegiko arduradunak borondatezko praktiken kudeaketari buruz sartutako deskribapena erakusten du aplikazioak.



## CURRICULUMA

Ikasleari ***Curriculum Vitae***an datuak sartzeko edo/eta eguneratzeko aukera eskaintzen zaio. Curriculuma, hain zuzen, izena ematen duen praktiken enpresek eskuratu ahal izango dute.

Curriculumak hainbat atal ditu:

### Curriculuma. Datu pertsonalak

GAUR aplikazioak emandako datuak; ezin dira eguneratu.




### Curriculuma. Bizilekua

Datu hauek ere GAUR aplikazioak ematen ditu; beraz, ezin dira eguneratu.




### Curriculuma. Prestakuntza

Atal honen barruan lau atal bereizten dira:

#### 1. Prestakuntza - UPV/EHUko titulazioak

- o Informazio hau GAURen eskuratzen da, eta kontsulta modura erakusten da (ezin da aldatu).




#### 2. Prestakuntza - Beste titulazio batzuetakoak

a. Atal honetan, ikasleak beste titulu batzuei buruzko informazioa sar dezake — UPV/EHUn egin ez dituenak—.




## 3. Prestakuntza – Doktoregoak

a. Ikaslea egiten ari den edo aurretik egin dituen doktoregoei buruzko informazioa.




## 4. Prestakuntza - Ikastaro osagarriak




## Curriculuma. Esperientzia

Atal honetan, ikasleak bere lan-eskarmentua edo praktikak adierazi ditzake.




## Curriculuma. Hizkuntzak

Atal honetan, hizkuntzen ezagutzari buruzko informazioa sar dezake.




## Curriculuma. Informatika

Atal honetan, informatikako tresnen ezagutzari buruzko datuak jasotzen dira. Lehen eremuak ezagutza erabiltzaile edo profesional mailakoa den jasotzen du.




## Curriculuma. Beste batzuk




## Curriculuma. Sortu Curriculuma

Atal honetan, hain justu, hainbat ataletan sartutako datuak jasotzen dituen curriculumaren kopia inprimagarri bat eskuratu dezake ikasleak.




INPRIMATU botoiaren bidez, ataletan sartutako datuak biltzen dituen eta inprimatu daitekeen PDF dokumentua sortzen da.

## ALBISTEAK

Menuko aukera honetan, ikastegiko arduradunak sisteman argitaratutako berriak eta oharrak erakusten ditu aplikazioak (ikasleak ikus ditzakeenak).




## PRAKTIKA-ESKAINTZA

Aukera honen bidez, aplikazioak aurre-hautaketa kudeatzen uzten du. Aukera honetara sartzen den ikasleak lehendabizi hainbat iragazki-eremu ikusiko ditu, baina plana nahitaez aukeratu beharko du. Tituluen goitibeherako menuan ikaslea baliozkotuta dagoen titulu guztiak agertuko dira, eta plan bakarrean baliozkotuta badago, hori soilik agertuko da.




Ikastegiak markatu badu praktika bakoitzeko aurre-hautaketaren algoritmoak praktikako ikasle bat hartzen duela, aukera honetan, praktika hautatzeko edo ez hautatzeko ***check*** bat agertu beharrean, testu-eremu bat agertuko da; bertan zehaztu beharko du ikasleak bere lehentasuna.

AUKERAKETEN KONTROLA

- Ikasle tituludunak ezingo ditu eskaintzak ikusi, eta mezu bat agertuko zaio: "*Ikasle tituludunak ezin ditu eskaintzak ikusi*".
- Programa honetan, sistemak hainbat balioespen ditu, ikastegiak zenbait parametrori emandako balioen arabera.
- Aldakorra
    - o Esleitutako ikaslearen baimenak:
        - ▪ **Ezin da praktiken eskaintza kontsultatu, ezta izena eman ere.**
            - Kasu honetan, praktika esleitua duen ikaslea (aktiboa) aukera honetan sartzen denean, ez zaio ezer erakutsiko, eta honako mezu hau irakurriko du:
                - o *"Praktika esleitua duzun bitartean, ezin duzu eskaintzen kontsultara sartu"*
        - ▪ **Praktiken eskaintza kontsultatu**
            - Praktiken eskaintza ikusi ahal izango du, baina ezingo du izena eman.
            - Praktika batean izena eman datak gainjarri gabe.
            - Praktika batean izena eman datak gainjarri arren
    - o Praktiken gehieneko ordu kopurua, tituluko.
        - ▪ Ikastegiak planeko gehieneko ordu kopurua zehaztu badu, aukera honetan ordu-muga hori ez dela gainditu aztertzen

da (egindako orduak + aukeratutako praktikaren orduak >= ikastegi-planeko ordu- muga).

- o Izena eman, arduradunik gabe.
  - Praktika bat "amaituta" egoeran geratzen denean, horri lotutako ikaslea "**berrikusteke**" egoerara igaroko da.
    - Ez. Ikasleak ezin izango du praktiken eskaintzara sartu, ikastegiko arduradunak bere egoera aldatzen ez duen eta "baliozkotua" gisa jartzen ez duen bitartean.
    - Bai. Ikasleak praktiken eskaintzan izena eman ahal izango du, "Baliozkotua" egongo balitz bezala.
    - Baldin eta, >=3 aste argitaratua badarama
      - o Izena emandako praktikak iragarki-taulan 3 aste (argitaratze-data) igaro dituela berresten da.
    - Baldin eta, >=2 aste argitaratua badarama
      - o Aurreko kasuan bezala, baina 3 beharrean 2 aste dira

## AURREHAUTAPENEAN

Ikaslearen aurre-hautaketa egin den praktiken zerrenda.

Praktikako bakoitzeko, horren xehetasunetara sartzeko Aukera izango du, datuak kontsultatzeko (ezkerreko botoia >>).




## ADJUDIKAZIOAK

Menuko aukera honen bidez, esleitutako praktikak eta bakoitzean egokitutako irakasle- tutorea (baldin badu) eta kanpo-tutorea ikusiko ditu ikasleak.

Praktika bakoitzeko, horren xehetasunetara sartzeko aukera izango du datuak kontsultatzeko (exkerreko botoia >>).




Era berean, lotutako hizarmena sortu ahal izango du (betiere, irakasle-tutorea eta kanpo-tutorea baldin baditu).

Gainera, PPAk horrek ezartzen badu, praktikaren tutore-irakaslea hautatzeko aukera izango da.

## EBALUAZIOA, MEMORIA

Programa honen bidez, ikasleak amaituta dauden praktika esleituen zerrenda ikusi dezake. Praktika bakoitzeko esteka bat agertuko zaio, praktiken txostena osatu ahal izateko. Txosten hori amaitutzat jotzeko, AMAITU sakatu beharko da.




Txostena amaituta ez dagoen bitartean, gif agertuko da. Behin amaituta, irudia agertuko da, eta ezin izango dira aldaketak egin txostenean.

Irudiaren gainean sakatuz gero. Unibertsitaterako komunak diren galderak eta ikastegiarenak berarenak agertzen dira.




## KANPOKO PRAKTIKA AKADEMIKOAK EGIN IZANAREN ZIURTAGIRIA

Menuko aukera honetan, aplikazioak pantaila bat erakusten du, honen antza duena:




Hor agertzen diren praktikak amaituta daude eta dagokien txostena osatuta dago.

Praktika beraren egiaztagiriak behin baino gehiagotan eska daitezke. Honako hau da muga bakarra: sortze-prozesuan ez egotea eta praktikako kredituak baliozkotu ahal izatea.

Esleitutako praktika bakoitzeko, eskatutako egiaztagirien historikoa bistaratuko da.



## KUDEATU ABISUAK

Atal honetan ikasleak praktika bat argitaratzen den bakoitzean abisua bidaltzeko eska dezake.



## AURKIBIDE ALFABETIKOA

**Orrialdea**

ADJUDIKAZIOAK ... 13
ALBISTEAK ... 11
ATARIKOA ... 4
AURREHAUTAPENEAN ... 13
BETEKIZUNAK ... 3
CURRICULUMA ... 6
Curriculuma. Bizilekua ... 6
Curriculuma. Esperientzia ... 8
Curriculuma. Hizkuntzak ... 8
Curriculuma. Informatika ... 9
Curriculuma. Prestakuntza ... 7
Curriculuma. Beste batzuk ... 10
Curriculuma. Datu pertsonalak ... 6
Curriculuma. Sortu Curriculuma ... 10
EBALUAZIOA, MEMORIA ... 14
IKASTEGIKO ARAUDIA ... 5
KANPOKO PRAKTIKA AKADEMIKOAK EGIN IZANAREN ZIURTAGIRIA ... 14
KUDEATU ABISUAK ... 15
PRAKTIKA-ESKAINTZA ... 11
SARBIDEA - IKASTURTEAK ... 5